

1888

Pascual Abaroaren iturriak



Arranegi Zabaleko iturria, B. Sobrado, c.1925. SOB 9x12-20_03. Vitoria-Gasteizko Pilar Aróstegui Udal Artxiboa

Lehentxoago esan dugu fortunak gastatu zirela portua eta moilak egiten eta mantentzen. Ura ekartzen ere dirutzak gastatu ziren. Edozelako ahaleginak egin ziren historian zehar, ingeniari atzerritarrak ekarri... Ahaleginak ahalegin eta eginak egin, XIX. mendera arte, XX.era arte esango nuke, ez zitzaion uraren hornidurari soluzio egokia bilatu.

Ez gara luzatuko liburuki honen asmoa beste bat da eta, baina apur bat atzera egingo dugu eta Pascualen osaba J. J. Uribarreni erreparatuko diogu.

Uribarrenek¹ bere garaian Trakamailetik ura ekarri zuen.

¹ LUA/Udal aktak, 1846-5-8: "Dicho Señor Alcalde así bien manifestó al Congreso la indicacion que el mismo don José Javier le hizo de los vivos deseos que tenia de favorecer al vecindario de esta Villa, traiendo a su costa al Pueblo las aguas potables de Tracamaldi, para lo cual tenia dispuesto doscientos o trescientos mil reales; y el ayuntamiento quedó enterado y muy satisfecho de los beneficos proyectos que acompañan a dicho Señor don José Javier para engrandecer a esta Villa de su nacimiento".

LUA/Udal aktak, 1858-8-19: Uribarrenek egun horretan Lekeitiori opari bat baino gehiago egin zizkion: Uren ekarrera eta iturriak, garbitegia, emaztearen erretratua, eta argi-armiarma. Gainera Antonio Goikoetxea arkitektuari agindutako merkatu berri baten

1846an asmoa erakutsi zion Udalari-Udalak ez zeukan horretarako behar zen dirutza- eta 1858an ametsa errealitate bihurtu zen. Bere patriatik ordaindu zuten uren ekarrera hori. Baina, ohi denez, laster egindakoa ez zen nahikoa izango² eta iloba Pascualek hobetu behar izan zuten uraren hornidura. Horretarako, besteak beste, burdinazko iturri modernoak ipini ziren. Modernoak orduan, 1888 harro erakusten zuten, klasikoak gaur egun. 12 iturri jartzeko asmoa erakutsi zuen Udalak³ baina ez dakigu azkenean zenbat ipini ziren. Dakiguna da Lekeitioko 17 lekutara heltzen zela orduan ura. Asmo artistiko handirik gabeko iturriak denboraren igarotzeak Lekeitioko ikur bihurtu ditu. Jagon ditzagun!


proiektua martxan zeukan: “Terminadas ya del todo(?) todas las obras emprendidas a mi costa, ya para la conduccion de las aguas desde Tracamaldi a esta Villa ya para el establecimiento de las fuentes y del labadero, tengo la honra de hacer a su Ylustre Ayuntamiento entrega formal de dicho objeto, suplicandoles que á mi nombre y el de mi difunta esposa acepte esta demostracion de lo mucho que amo á mi pueblo nativo, y lo amo ella constantemente como el suyo adoptivo...”.

2 *Historia de Vizcaya...* M. Azcarraga, 1885: “Lequeitio está bastante bien surtido de aguas potables, cuya conducción costeó el Sr. Uribarren; y como el vecindario ha aumentado desde entonces y las necesidades son cada día mayores por el establecimiento de las fábricas y otras causas, su sobrino D. Pascual de Abaroa trata de aumentar, también por su cuenta, el caudal de agua, á cuyo efecto nos dicen que se está gestionando para la adquisición de nuevos manantiales”.

3 LUA/Udal aktak, 1888-6-3:

“Distribución de fuentes metálicas

A continuacion el Sr. Goitia, dio cuenta, en en (sic) calidad de encargado con el S. Fillol para designar los puntos donde deben colocarse las fuentes que hagan el surtido de aguas en la Villa: de que á su juicio consideraba conveniente la siguiente distribucion: Barrio de Oleta, Hospital, Plazoleta de frente á casa de Nachiondo, Campillo alto, bajo la glorieta del jardin de casa de Arce, Beascocalea, punto intermedio entre las casas de Don Pascual Larrazabal y Sr. Chopitea; Ygualdea, frente casa del cura Aldecoa, con dos chorros de Traquemalle, uno y de Urquiza, el otro, Plazuela de Gamarra, en el angulo que forma la escalinata de la casa consistorial; Cabeza del espigon Sur del muelle en construccion, **Plazuela de Arranegui con dos chorros como en Ygualdea**; sitio denominado Caigane; final de la calle del Puerto y sitio intermedio entre las casas de Unceta y Erquiaga; calle Vergara, en su parte superior contigua á la tejabana de Petra de Achurra; Compañía, entre la Yglesia de San Jose y el Colegio y por ultimo en la parte interna y para servicio de dicho establecimiento benefico”.



Markuesen txistea